

Azaroaren 27an indarkeria sexistaren kontrako eguna gogoratu genuen. Gaztelaniako klasean nerabeen bikoteen kontrola landu zuten eta errekreoan lazo moreak banatu eta puntu lila osatu genuen patioan.

Arratsaldean, 4. mailako ikasleek Onintza Irigoienek bisita izan zuten. *Txingudi antisexista* plataformak antolatutako ipuin laburren lehiaketaren irabazlea izan zen lehenengo edizioan. Lehiaketa honek Asun Casasolak genero indarkeriaren kontra izan duen indarra eta kemenaren omendu nahi zuen, bere alaba Nagore Laffage 2008ko sanferminetan erailda izan ondoren. Egin diren bi edizioetan aurkeztu diren istorioen artean 13 hautatu ziren **Gogoratzeko nazunetan** liburuan eta Onintzarena hauetariko bat izan zen: *Milaka izen dituen protagonistaren ipuina*. Ikasleek parte hartu zuten irakurketan eta horren ondoren egindako solasaldian.

